

Irakaskuntza Pribatua

2014ko apirila 58. zbk.



GUURE LAN HITZARMENA



RAIN!



Aurkibidea

Horma	2
Editoriala	3
¿Reforma laboral?	4
Berriak	5
LOMCE–Heziberri	6
Prestakuntza	7
Gaitasuna	8
Jendarte	9
Mugimenduak	9
Eilastasuna	10
Fracking ez	11
Han hemenka irakurritakoak	12



Ikasturte amaierari begira egun erabakiorrak

Krisiaren amaieraren inguruko mezu interesatuak zabaltzen ari badira ere, jakin badakigu horren ondori latzak gero eta nabariagoak direla gure gizartean. Pobrezia eta prekarietatea geratzeko iritsi omen dira batzuk hori ez onartzeko prest egon arren. Horregatik **STEE-EILAS**ek ibilbide koherenteari eusten jarraitzen du eta egon gara, Bilbon gailur ekonomikoaren kontrako ekitaldietan, GUNEk antolatutako martxetan eta Madrilan martxoaren 22an izandako manifestaldian. Eta bitartean PP-k bere neurri atzerakoiekin erasotzen digu behin eta berriz: abortoaren legearen mehatxua, Gizarte Segurantzari ordaintzeko tarifa plan berria, justizia unibertsalaren galera...

LOMCEren eta murrizketen erasoak hezkuntza mundua gogor astintzen ari diren honetan, ekimen ugari bideratu dira eragile ezberdinen aldetik, berdin hezkuntza munduan zein jendarte mailan. Erantzun sendoak bideratzeko asmoz parte hartzen ari gara hauetako gehienetan adostasun ahalik eta zabalena lortu nahian, hiru aldarri nagusitu direlarik: **murrizketarik ez, LOMCEri ez, guk geure hezkuntza eraiki**. Lelo hauek ez dira ekimen guztietan batera presente izan, bai, ordea, ikastetxeetan burutu diren gehienetan. Bide beretik jarraitu behar dugulakoan gaude, bertako gobernuak eta Madrilgoa interpelatzearekin batera. Baina EAEko gobernuak beste kontutan dagoela ematen du, Heziberriren bidez adierazten den bezala. Eta eginkizun horretan bidelagun interesatuak omen ditu, lege berriaren nahiaren atzetik finantziario berriaren aldarria dutenak. Une berean, iritzi edo aldarrikapen moduan plazaratzen ari dira publikotasun irizpideekin lotutako zenbait planteamendu. Gure ustez, oso eztabaidagarriak izateaz gain, oinarritzko irizpide bat kolokan jartzen dute, hizkuntza aurrerakoi edo modernoaz itxuratuak badoaz ere, zerbitzu publikoari izaera ematen dion irizpide nagusia, titulartasunarena, ezbaian jarriz. Bestela esanda, **finantziario gaietara mugatu nahi dute publikotasunaren izaera**, herritar edota ekimen sozial izaera publiko izatearekin parekatuz.

Eta gai horrek lotura zuzena du sektorean ematen den egoerarekin. Ikastoletan egoerak LAB eta ELAren arteko gatazka sakona sortu den bitartean, gizarte ekimeneko ikastetxeen esparruan batasun sindikala maila oso handia da. Gatazka laborala bizirik dago eta mobilizazio ezberdinek eta martxoaren 26an eta 27an izandako greba egunen arrakastak indarberritu du sindikatu gehienon jarrera, Kristau Eskolarena ahuldu zuen bitartean. Orain, hausnarketa garaia dugu maiatzari begira hurrengo urratsak zeintzuk izango diren erabakitzeko. •

Días decisivos de cara al final de curso

Frente a los mensajes triunfalistas, la crisis persiste. La precariedad y la pobreza han venido para quedarse aunque muchos y muchas, entre ellos **STEE-EILAS**, no lo acepten.

En el ámbito educativo, hay tres reivindicaciones que muestran a las claras los principales ataques que se están sufriendo: ¡No a los recortes!, ¡No a la LOMCE!, ¡Construyamos nuestro propio sistema educativo! Sobre ellos están pivotando la mayor parte de las movilizaciones en nuestro sector y en el conjunto de la sociedad. Pero el Gobierno Vasco parece estar a otra historia con Heziberri y determinados agentes que demandan mayor financiación cuando hablan de una Ley de Educación. Pero hay otros debates que se están intercalando, relacionados con el concepto de lo público y, más específicamente, con la financiación de los centros concertados. No compartimos los discursos que pretenden deslegitimar la importancia del debate público / privado tildándolo de trasnochado, a la vez que se pretende equiparar lo público con lo popular o la iniciativa social.

Y en el sector seguimos la pelea. Tras el éxito de las convocatorias de huelga del 26 y 27 de marzo hemos salido fortalecidos. Ahora es hora de reflexión de cara al mes de mayo.

Contrato parcial, tarifa plana... ¿una reforma laboral encubierta?

El pasado 20 de diciembre el Consejo de Ministros aprobó el RDL 16/2013, de 20 de diciembre, con el objetivo de favorecer la contratación estable y mejorar la empleabilidad de los trabajadores. Sin embargo, en la práctica, el Decreto aprobado lo que hace es desregularizar aún más los contratos a tiempo parcial. Hay quien entiende que con esa medida y otras que vinieron posteriormente, el gobierno ha empezado una nueva reforma laboral de manera encubierta. El gobierno busca reducir la escandalosa tasa de paro mediante la promoción de los contratos parciales, generalizándose la precarización de estos. Con el objetivo de hacerlo atractivo para el empresariado han aprobado diversas medidas:

- Hasta ahora las horas complementarias solo podían hacerlas quienes tuvieran un contrato parcial indefinido. Ahora las harán también quienes tengan un contrato a tiempo parcial de carácter temporal, pues se ha prohibido la realización de horas extras en los contratos parciales. De esta manera, las horas complementarias se cobran como las ordinarias y no requieren cotización aparte, para la empresa.
- Se ha aprobado una ampliación de las horas complementarias que se pueden impartir. Aunque son un máximo de un 30% de las horas contratadas, este porcentaje se puede ampliar al 60% mediante Convenio. Además el trabajador-a lo puede ampliar voluntariamente otro 15% (30% si figura así en el Convenio). En total podría ampliar su jornada en un 90% según las necesidades de la empresa.
- La única condición para la empresa será avisar con 3 días de antelación (salvo que lo determine el Convenio) y llevar un registro de esas modificaciones.

A estas medidas hay que añadir otras que van en la misma línea:

- Las ETT podrán realizar contratos en prácticas.
- Todos los conceptos retributivos, tanto en metálico como en especie, pasan a integrar la base de cotización para contingencias comunes y profesionales .
- La simplificación de los modelos de contrato de trabajo.
- La ampliación de la reducción de jornada por cuidado de hijos hasta los 12 años y en las mejoras de las cotizaciones a la Seguridad Social.

Pero la medida más peligrosa de todas es la aprobación a partir del pasado 25 de febrero de la llamada tarifa plana a la Seguridad Social. A partir de esa fecha las empresas pueden hacer contratos indefinidos

cotizando sólo 100 € mensuales (50 € si el contrato es a media jornada) incluso cuando ha realizado despidos improcedentes antes de esa fecha. Incluso existe la posibilidad de despedir hasta el 30 de junio y contratar acogiéndose a esta tarifa partir del 31 de diciembre a la nueva medida. Tampoco existe ninguna limitación para que se contrate a personas despedidas por otras empresas del mismo grupo.

La tarifa plana no va a generar empleo, sino que va a permitir sustituir a unos trabajadores-as por otros-as, a menor costo. •

**Aurreko abenduaren 20an
Ministro Kontseiluak RDL 16/2013
, abenduak 20koa, onartu zuen
kontratazio egonkorra eta langileen
enplegarritasuna hobetzeko
asmoz. Hala ere, Dekretuak
lanaldi partzialeko kontratuaren
desarautze handiagoa dakar.
Batzuek diotenez, dekretuak
jasotako neurriekin eta ondoren
onartutako beste batzuekin
gobernuak beste lan erreforma
ezarri du ezkutuan. Gobernuak
langabazia-tasa izugarria
jaitsi nahi du eta horretarako
lanaldi partzialeko kontratuak
prekarizatzen ditu.**

**Dekretuak jasotzen dituen neurrien
artean, aipagarriena Gizarte
Segurantzako tarifa finkoa da. Horren
bitartez enpresariak mugagabeko
kontratuak egin ditzakete Gizarte
Segurantzari 100 € hilean soilik
kotizatuz. Tarifa finko honek ez du
enplegua sortuko; langileak beste
langile batzuek ordezkaturiko dituzte,
baina merkeago.**





El Ararteko pide sacar de las aulas de 2 años a las ayudantes externas

El Ararteko ha pedido al Departamento de Educación que ponga fin a una práctica anómala que se viene produciendo en los centros públicos de Bizkaia, la contratación de auxiliares externos en las aulas de dos años.

En 2011 el Ararteko decidió incoar un expediente de oficio para abordar esta situación, debido a las quejas recibidas. En 2012, Inspección educativa abrió una investigación en todos los centros públicos de educación Infantil y Primaria de Bizkaia que permitió constatar la presencia de un total de 176 personas que desarrollaban labores de ayudante en las aulas de dos años.

El Ararteko recomienda al Departamento de Uriarte que “no permita la presencia” de estos auxiliares ajenos o que, de lo contrario, haga extensivos estos recursos, a través de personal propio, a la totalidad de las aulas de dos años” de los colegios dependientes de Educación.

Epategiak arrazoia eman die STEE-EILAS eta LAB sindikatuei UPV/EHUko irakasleen osagarrien inguruan

UPV/EHUko irakasle eta ikertzaile guztiok soldata duinak jasotzeko eskubidearen aldarrikapena indarrean da berriro ere. Izan ere, soldatak duintzera hurbiltzen gaituen norbanako osagarri gehigarrien deialdiaren etetea gauzatu zuen unibertsitateak 2010an, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin edo eskariz. Ondorioz, UPV/EHUko zuzendaritzak eta Eusko Jaurlaritzak 2006ko uztailaren 19an **STEE-EILAS** eta LABekin sinatuko akordioa alboratuz, diskriminazio egoera berriak sortu dituzte unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen artean.

No a la liquidación de las Cajas Vascas

Bajo este lema distintas organizaciones sindicales y sociales –entre ellas **STEE-EILAS**– han iniciado una campaña para evitar a la bancarización y privatización de las Cajas Vascas -Kutxabank- reforzando el control público, el ámbito vasco de actuación, la inversión en Euskal Herria y el carácter social de dichas entidades.

Afirmamos, que como en otros sitios, aquí también sería posible si se da marcha atrás al proceso seguido hasta ahora y se toman las medidas políticas y legislativas necesarias para mejorar el control público y social y defender el ámbito vasco de decisión.

Con el objetivo de construir un sistema financiero público vasco que permita gestionar el crédito y el ahorro vasco en beneficio de las personas y de la sociedad, vamos a impulsar una dinámica de interpelación y movilización para impedir la liquidación de las Cajas Vascas en beneficio de unos cuantos accionistas y especuladores.


Zeren truke Haur Eskola Pribatuetako ikasle kopurua gora?

Apirilaren 2an argitaratu zen Haur Eskola Pribatuei 2013-14 ikasturterako diru-laguntzen berri ematen duen ebazpena. Guztira 23,6 milioi € banatuko dira, 263 ikasgeletan dauden 14.816 ikasleengatik. Teoriaz, diru-laguntzak kostoaren %60a betetzen du. Ikastetxeek diru-laguntzaren %22,3a jasoko dute orain eta bestea uztailean. 2013-14 ikasturtean haur eskola pribatuetan daude zikloko ikasleen %47,32 (Bizkaian %51,9ra iristen bada ere). Ikasle kopuruak gora egiten du, sistema publikoan behera egiten duen bitartean. Horrela Haurreskolak Partzuergoko zentrotan urtarrilean 5.677 ikasle zeuden, 2012ko urtarrilean 6.400 ziren bitartean. Prezioak zerikusi handia badu ere (kasu askotan kuotak merkeagoak dira haur eskola pribatuetan) ezin dugu ahaztu bi urtetako gelatan matrikulatzea bihurtu dela itundutako ikastetxe batean eskola-postua bermatzeko bidea, legeak beste irizpideak finkatzen baditu ere. Eta testuinguru honetan, hor daude haur eskola horietan lan egiten dutenen lan baldintza kaskarrak, seguruenez, sektoreko kolektiborik prekarioena.

2010tik honako deialdi ezak irakasle eta ikertzaile askorengan eragiten du, 500 batek osagarri hauek eskatzeko eskubidea izan arren, ezin izan dutelako aukera hori baliatu.

Epai honek konponbidean jartzen du azken urteetan UPV/EHUko irakasle eta ikertzaile guztiak jasan duten ezkutuko soldata murrizketa, baina bereziki irakasle eta ikertzaile berriek jasan dutena. Izan ere, deialdi-eten honek larriki urratu ditu langile berri hauek bere soldatak duintzeko eta hobetzeko eskubideak; exijentzia akademikoa handitu, promozioa ukatu eta bestelako murrizketak pairatu behar izan dituzten aldi berean. Horietako asko behin behinekoak eta soldata baxuenak dituztenak direlarik gainera.

LOMCEtik Heziberrira... eta buelta



LOMCEk abiadura bizian jarraitzen du bere martxa. Dagoeneko argitaratu dituzte Lehen hezkuntzako eta Oinarrizko Lanbide Heziketako curriculumak. Wert jaunak ederki daki zer eta noiz egin nahi duen. Eusko Jaurlaritzak dio ezartzeko denborarik ez dagoela... baina Oinarrizko Lanbide Heziketaren inguruan egin du jada moldaketa legal bat ezarpen hori dela medio. Esango al digu zerbait gehiago irailaren 1ean indarrean egongo diren beste atalei buruz? Soilik curriculumarekin lotutakoak dira ezarriko ez direnak? Zer gertatuko da antolaketarekin, kudeaketarekin, frogekin, erlijioarekin...? Ez da nahikoa administrazioak oraingoz erantzun duena. Ba al dakite beraiek zer eta nola egingo duten? Gure zalantzak, ikasturtea amaitu baino lehen hurrengo antolatu behar dugunon kezka argitzea administrazioaren ardura da, propagandak alde batera utzita eta garbi hitz eginez.

Bestalde, Hezkuntza Sailak Heziberri egitasmoarekin jarraitzen du. EAJren programa politikoaren hezkuntzako atalaren lanketan erabaki zuen eragile batzuen parte hartzea bideratzea eta beste batzuei atea ixtea. Orain arte emandako urratsen berri jaso genuen sailburuaren eskutik, datozen hilabetetan landu nahi duten egutegiarekin batera. Itxitako atala "Hezkuntza eredu pedagogikoaren marko propioa" izenekoa da. Honen onarpena

De la LOMCE a Heziberri... y vuelta

La LOMCE sigue su curso acelerado en Madrid. Ya han sido publicados los decretos del currículo de Primaria y de la FP Básica. El Gobierno Vasco sigue diciendo que no hay tiempo para aplicarla... pero ha modificado, por ejemplo, la normativa de la FP básica, debido a la implantación de la LOMCE. ¿Va a hacer lo mismo con lo referente a Primaria? ¿Es el apartado curricular el único que no va a aplicar? ¿Qué pasará con los aspectos organizativos, de gestión y participación, con las pruebas, con la religión? Muchas dudas y poca luz. Menos claro es todo lo referido al programa Heziberri. Como hasta ahora, no nos queda otra que seguir informando y movilizándolo para que no se aplique esta ley retrógrada e impresentable.

islatzen zuen argazkia lortzea ezinezkoa egin zitzaientzen, nahi zuten moduan behintzat. Curriculum berriak egiteko talde teknikoak lanean jarri dute eta badirudi ikasturtea amaitu baino lehen onartu nahi dituztela. Hauek egiteko garaian kontuan hartuko dute, besteak beste, **"LOMCEren garapena eta gutxieneko edukiak ezartzen dituzten errege dekretuak"**. Sahiesteko, errespetatzeko, egokitzeko...???

Diotenez, hau ez da LOMCeri aurre egiteko sorturiko ekimena, baina LOMCE gainditzeko balioko duela diote.

Argi dagoen gauza bakarra Hezkuntza Sailaren LOMCeri aurre egiteko konpromiso falta dela, hezkuntza mundutik eskatzen diogun norabidean behintzat.

Horrek berak garbi uzten digu zein den hartu behar dugun bidea: LOMCeri aurre egiteko informazioa eta tresnak landu, zabaldu eta partekatu, tokian tokiko ekimenak burutu, eskola komunitateko sektore guztien parte hartzea sustatu eta gure ikastetxeetan LOMCERik ez aplikatzeko urratsak ematen hasi.

Eragile ezberdinak horretan ari gara aspaldi eta horretan jarraitzeko konpromisoa dugu. Denok bide berean jartzea eta administrazioei berdina egin dezaten exijitzea dira erronka nagusiak. •

Prest Gara

Ikasturtero maiatzean eta irailean Garatu Planaren deialdien zain egoten ginen irakasleok. Garatu-k urteetan gure etengabeko prestakuntza bermatu izan du. Izan du, bai, ikasturte honetan Garatu desagertu delako.

Pasa zen ikasturtean jada, Eusko Jaurlaritzak irakasleen prestakuntzan ikuspuntu aldaketa zekarrela bota zuen Garatu-ri buruzko bileran. Aldaketa honek murrizketa izugarriak ere ekarri zituen. Izan ere, iaz ikastetxe pribatuetako prestakuntzarako diru partida osoa bertan behera utzi zuten (formazio orokorreko 140.000 € + ingeleserako 536.000 €) eta ikastetxe publikoetakoa erdira murriztu zuten (2012-2013an 1.475.000 €; 2013-2014an 742.000€).

Ikasturte honetan zuzenean Garatu desagertu da.

Eta horren ordez zer? Horren ordez Prest Gara aurkeztuko dute. Hauek izan dira Lakuan emandako argibideak:

“Heziberri 2020 da honen marko orokorra. Horren atal bat da prestakuntza, hasiera eta etengabeko prestakuntza.”

“Programa honen zergatia Garatu programaren gabezia da: Garatuk pertsonen prestakuntza du helburu; Prest Gara-k ikastetxeen prestakuntza, ikastetxe publiko zein pribatu.”

“5 ildo: eleaniztasunerantz, aniztasunean elkarrekin bizitzen ikasi, *share_(h)*ezkuntza, oinarriko kompetentzien garapena eta, nola ez, bikaintasunerantz.”

“Proiektu horiek baliabideak gehituko dituzte.”

“Argi dago ikastetxe guztiei ezin zaiela gauza bera eskatu eta eskaini, egoerak eta emaitzak oso desberdinak direlako...”

“Berritzegunetan jasotako datuen arabera, irakasleek ikastetxeen arteko formazioa lehenesten dute. Hau dela eta, ikastetxeen arteko sarea antolatu nahi dute formazioa eta esperientziak trukatzeko.”

Lakuan emandako 6 puntu horiekin ideia orokorra besterik ezin badugu egin ere, ez da behin eta berriro informazio gehiago eskatu ez dugulako... erantzun zehatzagorik jaso ez dugulako baizik. Jaurlaritzaren asmoa publikoki Prest Gara egitasmoaren berri ematea da. Garrantzitsuagoa omen da etekin politikoak eta publizitatea lortzea, langileak informatzea baino.

Bukatzeko, irakasleak prestigiatzeko ekintza polita egiteko asmoa ere badutela adierazi dute. Ez al da prestigiatzeko modurik onena langileoi lan baldintza duinak ematea? Gaixotzen garenean %100a ordaintzea eta lehen egunetik ordezkatzea, absentistak garela esan beharrean? Guk hala uste dugu behintzat. •



2013/2014



GARATU

Prest Gara

Después de años esperando cada curso la convocatoria para la formación de GARATU, este curso nos ha sorprendido la noticia de su desaparición. En su lugar, el Gobierno Vasco presentará próximamente Prest Gara, parte de Heziberri 2020. Esta formación va dirigida a los centros educativos tanto públicos como privados e irá acompañada de recursos. La formación hará distinción entre centros, porque como dice el departamento de educación, no se puede pedir y ofertar lo mismo a centros que tienen situaciones y resultados muy diferentes. Nos tememos que las diferencias no se van a acortar, sino que van a aumentar.

Emakumeak eta erabakitze gaitasuna

Banakako bizitzan nahiz bizitza kolektiboan, gazte gaztetatik aukera ezberdinen artean hautatu behar izaten ditugun egoerak etengabe aurkitzen ditugu. Bizitzan, aldi oro, erabakiak hartzen ari gara. Horrela, “erabakitzen dugun hura garelara” esan genezake.

Beharren, sentimenduen eta harremanen arabera erabakitzea, borondatearen adierazpena da. Horrela, erabaki jakin batzuk hartzearen azalpena egoeraren inguruko faktoreetan dago.

Badira gogoeta lasai baten ondoren hartzen diren erabakiak, datuak arretaz haztatuz eta modu kritiko batean aukerak aztertuz. Hala ere, erabakitze prozesuan faktore ugari pilatzen direla jakin behar dugu eta horietako batzuk subliminalak. Horiek modu ezberdinean eragiten dute, egoera, izaera, boterearen egitura, banakako balore edota taldeko kulturaren arabera.

Taldeko kultura hori izaten da, batzuetan, askatasunez erabakiak hartzea oztopatzen diguna. Gobernuak, erlijioak, kultura androzentrikoak, presio ekonomikoak, inguruak eta onartua izatearen beharrak erabaki jakin batzuk hartzea eramaten gaitu, gure jendarteak sortu dituen jarrera estereotipatuen arabera. Horrek, batzuetan, gure behar eta nahiekin bat ez datozen noranzkoak hartzea derrigortzen gaitu. Eta hemen gure gobernuak txapela irabazten dute.

Jendarte heteropatriarkal honetan non askorentzat oraindik emakumeak bete behar duen funtzio nagusia birsortzailea den, ez da harrizkoa sektore politiko, ekonomiko eta erlijioso batzuk bat egitea gure erabakitze eskubidea ukatzeko. Era berean emakumeok eztabaida eta borrokatze objektutzat hartzen gaituzte, haien helburu bakarra, gero eta prekarioagoa den bizitza sostengatzera kondenatzea den arren.

Jendarte demokratiko batean pertsona orok erabakitze eskubidea eduki beharko genuke, gure bizitzari buruz, etorkizunari buruz eta nola ez gure gorputzari buruz. Eta erabaki horiek behatze eta manipulaziorik gabe hartzeko aukera eduki beharko genuke, hau da, modu libre batean.

Erabakiak hartzeko garaian genero estereotipoek erabat baldintzatzen dutela ezin dugu ahaztu. Itxaropen eta aukera batzuk “emakume” ereduarekin egiten dute bat, eta beste batzuk “gizon” ereduarekin. Nahiz eta eredu nabarmen horiekin bat ez etorri, nekeza izaten da taldearen



gaitzespenari aurre egitea. Beraz, estereotipo sozialez markatuak dauden hainbat erabaki, interes, hautu... ezin dizkiogu zoriari edo naturari egotzi.

Onartezina da, agintari talde batek, gizonezkoak gehienak, eta elizako hierarkiak (gizonezkoak guztiak), emakumeoi egin behar duguna inposatzea, emakumeok tuntuntzat hartuz, geure erabaki propioak hartzeko gai izango ez bagina bezala.

Beraz, gazteekin erabakiak hartzeko gaitasuna lantzea ezinbestekoa da, horiek, modu aske batean hartzen ikasteko. Horrela gazteek ardura eta autoestimua garatzeko aukera izango dute.

Baloreetan oinarritutako hezkuntza batek, ondorengo belaunaldiei demokratikoagoak, berdinak eta inklusiboak izaten lagunduko die. Era berean, hezkuntza sexual egoki batek bitartekoak eskainiko dizkie euren sexualitatea modu aske eta ez estereotipatu batean bizitzeko eta nahi gabeko haundunaldiak ekiditeko lagunduko du. Horretarako legeak herritarren nahi eta beharrei erantzun behar die. Tamalez, geure agintariek badakite non azpimarratu: hezkuntzan, LOMCE legearen ezartzeari esker genero ikuspuntutik atzerapen handiak emanez, osasungintzan eta emakumeen gorputzari buruzko erabakiak hartzen.

Lege atzerakoiak onartu eta murrizketa politikak dirauen bitartean, belaunaldi berriek nekez erabaki ahal izango dute libreki, modu autonomo eta arduratsuan. Bai aukera akademiko, lanbide eta bizitzan orokorrean. •





Gazako Arka: itxaropena eraikiz

Gaza's Ark proiektuaren birtartez Gazako arrantza itsasontzi bat kargaontzia bihurtzeko asmoarekin birmoldatzen ari da. Itsasontzi hau birmoldatzen ari diren langileak bertakoak dira eta baita erabiliko diren beste baliabideak ere. Nazioarteko eta Palestinako tripulazioa Gazan itsasoratuko da, Mediterraneoan nabigaziorako itxita dagoen portu bakarretik. Itsasontzi honek nazioarteko erosleen produktu palestinarrak eramanez merkataritza-akordioak bete ahal izango ditu eta, horrez gain, blokeoa ilegal eta gizagabea-ri aurre egiteko aukera izango du.

Honekin batera, proiektuak, ontzigintza-eraikuntzarako laguntza ematen du. Azken urteetan blokeoaren ondorioz ontzigintza ia ia desagertu egin da Gazan eta honek ondorio larriak ekarri ahal ditu datozen belaunaldietarako.

Proiektu honek beste onura batzuk ere ekartzen dizkio Gazako herriari. Alde batetik Gazako artisauen eta nekazarien produktuak saltzeko aukera izatea munduan,

eta beste batetik Gazako marinelek itsasontziak eta tresneria erabiltzen trebatzeko aukera izango dute.

Komertzio eta lan arloan Israeleko duen menpekotasuna dela eta mugen itxierak lurralde okupatuetan zuzenki eragiten du. Gazan, horrek guztiak langabezi tasa altuak izatera (%70) daramatza, diru sarrera, kontsumo eta aurrezkiak gutxiagotzera eta ondorioz, bizi kalitatearen beharakada itzela eta pobrezia-aren gorakada.

Egia bada ere proiektuak Gazan bizi den langabezi larria ekiditeko apur bat laguntzen duela, jendea kontratatuz itsasontzia birmolda-

tzen eta merkatariei beraien produktuak zabaltzen, proiektuaren helburu nagusia Israelek ezarri duen blokeoa era baketsu batean salatzea da.

STEE-EILASek bat egiten du proiektu honekin eta bermea eman dio berari. Bide batez, **STEE-EILASek** zenbait produktu erosteko konpromisoa hartu du Euskal Herriko beste eragile batzuekin batera. Azkenik, berriro salatu nahi dugu Palestinak jasaten ari den blokeoa eta APAR-THEIDa.

Info +: www.GazaArk.org

El Arca de Gaza reconstruye un gran barco de pesca en Gaza para convertirlo en carguero, utilizando recursos locales. Una tripulación internacional y Palestina zarpará de Gaza, único puerto del Mediterráneo cerrado a la navegación, llevando productos palestinos para cumplir con acuerdos comerciales con compradores internacionales, para desafiar el bloqueo ilegal e inhumano de Israel.

eilastasuna asanblada

Otsailaren 21ean Gasteizen Eilastasunako asanblada egin genuen eta bertan herri hezkuntzarekin erlazioa daukaten 15 proiektu solidario onartu ziren. Asanbladan 27 Eilastasun kide egon ginen eta hauen artean bultzatzaile lanak egiten ari direnak proiektuei buruz hitz egin ziguten. Proiektu hauek El Salvador, Guatemala, Txile (Maputxeen lurraldean), Chiapas (Mexiko), Palestina eta Tindufen Saharar errefuxiatuak dauden kanpamentuetan daude kokatuta.



2013an eraman diren 14 proiektuak nola joan ziren azaldu zuten eta eguneroko bizitzan dituzten arazoei aurre egiteko Eilastasunako dirua zertan erabiltzen duten ere.

Banan-banan, 2014-15rako aurkeztu diren proiektuak azaldu ziren. Haietatik 1 berreskuratu dugu, Chiapaseko hain zuzen ere, pasa den urtean galdu genuelako, nahiz eta aurreko urteetan haiekin proiektuak izan. Beste guztiak iazko elkarteek aurkeztutako proiektuak dira.

Orokorrean proiektuetako ardura-dunekin hartu emanak onak dira eta Euskal Herritik hainbat lagun proiektuak bisitatu dituzte. Proiektuak eta herrialdeen egoera bisitatu zuten bi pertsonak beraien esperientzia kontatu zuten asanbladan; batak Honduraseko hauteskundeetan nazioarteko behatzaile moduan izandako esperientzia eta besteak Palestinan brigada batean bizi izandakoa kontatu zuten. Gainera aurkeztu ziguten ere Saharako errefuxiatuen ibilbidea komiki batean.

Ikastetxe publiko bateko zuzendaritza taldekide bat ere etorri zen bere ikastetxean datorren urtetik aurrera proiektu batekin ikasleak lanketa bat egingo dutela azaltzea. Egia da ikastetxe batzuk daudela Eilastasunako proiektu batzuekin lanean baina datorren urtetik aurrera ikastetxe gehiagoen inplikazioa nahiko genuke aberasgarriago izateko.

Proiektu batzuetako arduradun batzuk ere urtean zehar bisitatu eta hitzaldi batzuk eman dizkigute eta hemendik aurrera ikastetxeetan edota sindikatuan egingo diren ekimenak handitzea izango da helburu nagusienetako bat.

34000 euro izan ditugu proiektu hauen artean banatzeko eta asanbladan onartu zen zenbat diru banatu behar zen



Una profesora trabaja en los campamentos de refugiados del Tinduf con niños y niñas con necesidades educativas especiales.

Este proyecto de Eilastasuna lo lleva la Asociación Getxo Pro-Sahara "ATFAL".

El objetivo del proyecto es continuar con la mejora de los centros de educación especial saharauis y de la asistencia a los/as paráliticos/as cerebrales.

proiektu bakoitzari, 2.000 euro eta 2.300 euro artean. **STEE-EILAS**en diru sarrera gordinen %1az eta bazkideen ekarpenez, 5 euro hilabeteko, osatuta dago Eilastasuna Fondoko dirua.

Urtean zehar egoitzara heltzen zaizkigun proiektuetako edo kokatuta dauden herrien berriak Eilastasunaren blog-ean eskegitzen direla ere aipatu zen. Helbidea eilastasuna.wordpress.com da.

Internazionalismoaren omenez topo egin zuten asanblada bukatuta bazkaltzera joan ziren eilaskideak. BIBA ZUEK!•



Gure sinadura fracking-en kontra

Necesitamos tu firma contra el fracking

Las plataformas contra el fracking han impulsado una Iniciativa Legislativa Popular en el Parlamento Vasco. El objeto es conseguir 30.000 firmas para poder proponer una ley que impida la práctica del fracking en toda la CAV. Las presiones de grupos poderosos son muy fuertes y la indefinición de determinados partidos, muy significativa. Por ello, es una iniciativa fundamental que contará con el apoyo de **STEE-EILAS** y esperamos que con tu firma. Tenemos a tu disposición en las distintas sedes información de la campaña, así como los formularios de recogida de firmas. Reproducimos aquí un artículo escrito por la propia Plataforma.

Sinadurez josiko dugu fracking-engandik babestuko gaituen herri erantzuna

Jakin badakigu azkenaldian frackingaren inguruko albiste gutxi egon direla gure inguruan; zulatzaileek euren planak aldatu dituztenaren seinale. Hala ere, frackinga geldirik egotetik oso urrun gaude. Gaur egun, ikerketa baimenak eta frackingaren bidez egingo diren putzuen eskaerak bere ibilbidea jarraitzen dute, Madrilen daude, Ingurumen Inpaktuen Deklarazioen zain. Aurreikusi daitekeenaren arabera, 2014. amaieran edo 2015aren helduko dira baimenak eta horren ondoren zulatzen hasteko asmoa dute. Frackinga gu guztiok salbatuko gintuen miraria izatetik, ozen iragartzen zutena, isilik kudeatzen jarraitzeko kontu batera garatu da. Aldaketa honek, baina, arrazoi bakarra du atzetik: herriaren kontrako jarrera. Hori dela eta, Herri Ekimen Legegilea honen garrantzia agerian utzi digute: ezingo dituzte euren plan zulatzaile eta suntsitzaileak aurrera eraman gu guztion artean herri erantzun ozena eraikitzen badugu.

Inguruko lurraldeetan frackinga debekatzeko legeak egon izan dira. Orain abiatu den kanpainak antzeko bidea jorratu nahi du. Antzekoa, proposatzen dugun legea Euskal Autonomi Erkidegoan frackinga debekatzeko helburua duelako, baina zeharo ezberdina gure kasuan herri partaidetzaren bidez sustatu nahi dugulako. Herri Ekimen Legegilearen formula aukeratuta, martxoaren erditik uztaileko erdira arte gutxienezko 30.000 sinadura bildu beharko dira, testua legebiltzarren sartu dadin eta bertako tramitazioa abiarazteko.

Horretarako ildo ezberdinak jorratuko dituen kanpaina abiarazi dugu. Lehenik eta behin, mugimendu honen zutabeetako bat diren eragileen konpromisoa behar dugu. Borroka honi babesa adierazitako eragileekin harremanak abiatu ditugu, bakoitzak bere eremutik eta ohikoak dituen moduekin mugimendu honi bultzada emateko. Eragileen eta pertsonen konpromisoarekin lortuko baitugu leku anitzera heltzea eta, sinadura aitzakia, herri erantzuna eraikitzea.



Horrez gain, Herri Ekimen Legegilea abiarazten dugu frackingaren arazoa azken txokoraino eramateko asmoz. Horretarako kalean lan aparta egin beharko dugu: herriz herri aritu, hitzaldiak eman, informazioa banatu edota jendea elkartzen den leku eta jaietan presentzia izan. Azkenik ere, estrategikoa izango den elkargune eta informazio-gunea ireki dugu Gasteizen. Kanpaina honek, hortaz, laguntza modu ezberdinak eskatzen ditu: zabalduko ditugun sinadura-orriak zuen inguruko lagunen sinadurekin betetzen, antolatzen dituzuen ekitaldietan guri txoko bat irekitzen edota gurekin batera txoko ezberdinetara heltzeko asmoa betetzen.

Beraz, abian da frackinga debekatzea xede duen Herri Ekimen Legegilea. Beharrezkoak diren 30.000 sinadurak lortzeko borondate irmoa dugu eta aukera badago hortik gora ahalik eta sinadura gehien jasoko ditugu. Modu honetan, herri erantzun ozena lortzen badugu, Legebiltzarreko alderdi politikoek agerian utzi beharko dute frackingaren inguruan duten asmoa, horretarako bi aukera izanda. Bata, Ekimenak aurrera eginez gero herriak eskatzen duen frackingaren debekua onartzea edota bigarrenik, etsi-etsian, erregai fosilen bide agortuaren alde apustua egin argi izanda ordezkatu beharko luketen gizarte horren nahietatik oso urrun daudela.

Gure ama-lurra suntsitzen duen energia eredu honetaz nazkatuta gaudela esateko garaia da. Zuen guztion konpromisoari esker, sinaduraz sinadura, zuena eta zuen inguruko jendearnak bilduta, frackinetik salbatuko gaituen herri erantzuna eraikiko dugu. •



Han hemenka irakurritakoak

Tras cinco huelgas en un semestre, resoluciones judiciales y recursos contra las mismas, enconamiento público y datos enfrentados entre sindicatos y patronal, el conflicto en la enseñanza concertada sigue enquistado desde que las negociaciones se rompiesen en julio pasado.

Casi 12.000 docentes de unos 200 centros, la mayoría de ellos asociados a Kristau Eskola, caminan hacia un final de curso sin ver resuelta su situación, pese a que ambas partes se llaman mutuamente a la responsabilidad.

“Si volvemos de Semana Santa sin una decisión será difícil encontrar una salida antes de final de curso”, reconoce un dirigente sindical, quien, con todo, ve margen para una solución. “Queremos un acuerdo antes de final de curso, pero, tal y como está la situación por parte sindical, lo vemos difícil”, responden fuentes de Kristau Eskola, la patronal que agrupa a 137 colegios, la gran mayoría religiosos.

El País 30-04-2014



STEE-EILASen Kongresoa



Maiatzaren 16 eta 17an Gasteizen burutuko dugu **STEE-EILASen X. kongresoa**.

Eztabaida eta hausnarketarako aukera hau baliatu nahi dugu datozen hilabete eta urtetan etorriko direnei aurre egiteko prestatuz.

LOMCEk eta murrizketa politikek gogor eraso dute hezkuntza mundua, bereziki langileak eta irakaskuntza

publikoa. Honek gure jarduera sindikala fintzea eta hezkuntza-eragile gisa dugun papera indartzea exijitzen digu.

Horren harira, eztabaidagai nagusia izango den hezkuntza ponentziak aukera emango digu **STEE-EILASen** hezkuntza eredia mamitu eta indartzeko, kongresuan bertan eta aurretik gauzatuko dugun eztabaida prozesu zabalaren bitartez.

www.stee-eilas.org



Araba: Eulogio Serdán 5
01012 Gasteiz
☎ 945 14 11 04 ☎ 945 14 43 02
araba@stee-eilas.org
UPV/EHU Elurreta
Ikasgelategia, 204. Bulegoa
01006 Gasteiz
☎ 945 01 33 97
stee-eilasa@ehu.es

Bizkaia: Nikolas Alkorta 3,
lonja 13 Zabalburu
48003 Bilbo
☎ 944 10 02 98 ☎ 944 10 13 60
bizkaia@stee-eilas.org
UPV/EHU Leioako Campusa
Gizarte Arloko Eraikina
48940 Leioa
☎ 94 601 52 87 ☎ 94 601 24 34
lvzeilas@lg.ehu.es

Gipuzkoa: Basotxiki 30-34 atz.
20015 Donostia
☎ 943 46 60 00 ☎ 943 45 36 27
gipuzkoa@stee-eilas.org
UPV/EHU Gipuzkoako Campusa
Ignacio M^a Barriola eraikina
Elhuyar Plaza 1
☎ 943 01 84 36 ☎ 943 01 81 40
sczeilas@sl.ehu.es

Nafarroa Joaquin Beunza, 4-6 behea
31014 Iruñea
☎ 948 21 23 55 ☎ 948 22 97 90
nafarroa@stee-eilas.org

**Egoitza Berria!
¡Nueva sede!**